

## KANALA

Gure proiektua aurrera eramateko erabaki dugu gure komunikazio kanalak webgune bat eta denda fisikoa izatea, batan zein bestean bezeroak aukera du galderak egiteko eta informazioa lortzeko.

Era berean, BackBrella saltzeko, webgunea eta denda fisikoa erabiliko dugu, webgunearen kasuan, online erosteko aukera emango dugu eta produktuak banatzeko postaren bitartez etxera bidaliko ditugu edo puntu jakin batzuetan produktua hartzeko aukera emango dugu, hala nola, kopisteria batean. Bestalde, Denda fisikoan, produktua erosi eta han bertan hartu daiteke, baita erreserba egin eta beste egun batean hartu ere inbentarioa baldin ez badago.

